

Cabify/Vueling

Zehaztapenak eta baldintza orokorrak

1. CABIFY enpresak Avios puntuak emango dizkie Iberia Plus (IBP) edo British Airways Executive Club (BAEC) programetako ("Programako bazkideak") bazkideak diren bezeroei.
2. Espainian Cabify enpresaren zerbitzuak erabiltzen dituzten Programaren bazkideek 1 Avios jasoko dute Lite, Group, Kids edo Executive zerbitzuetan kontsumitzen duten 2 €-ko.
3. Programaren bazkideek urrats hauek egin beharko dituzte Avios puntuak lortzeko:
 - a) Erabiltzaileak Iberia Plus, Vueling edo British Airways Executive Club programako bazkide-zenbakia idatzi behar du CABIFY-ren aplikazioan, My account > My info > Loyalty program atalean.
 - b) CABIFY kontuaren titularra afiliatuen programaren bazkide izan beharko da ibilbidea eskatzeko unean. Eta afiliatuen programa aurrez hautatuta izan beharko da zerbitzua eskatzeko unean.
 - c) Aldi berean fidelizazio-programa bakarra eduki ahal izango da aktibo Cabify kontuan.
 - d) Kontuak ezin ditu aldi berean beste programa batzuetan ere puntuak pilatu.
 - e) Erabiltzaileak edozein unetan aldatu ahal izango du Programa eta Programa horri dagokion bazkide-zenbakia idatzi beharko du.
 - f) Aplikazioan hautatu den programan soilik pilatuko dira Avios puntuak. Bezeroak programaren bazkide-zenbakia oker idazten badu, bere erantzukizuna izango da guztiz, eta ezingo ditu dagozkion Avios puntuak pilatu.
4. Fidelizazio-programetako zehaztapenen eta baldintzen arabera eman eta trukatu dira Avios puntuak. Iberia Plus-enak kontsultatzeko, joan www.iberia.com helbidera, eta British Airways Executive Club-enak kontsultatzeko, www.ba.com.
5. Pilatutako hileko kontsumoak zatituta geratuko balira, gertueneko osoko zenbakira gehien hurbiltzen den zenbakira pilatuko da (1. adibidea: 10,8 € berdin 11 € / 2. adibidea: 13,2 € berdin 13 €). Deskonturen bat edukiz gero, deskontu-zenbateko horiek pilatutakotik ere deskontatuko dira Avios puntuak ematerakoan.
6. 400 Avios puntuko bonu bat emango zaio CABIFY aplikazioa lehen aldiz deskargatu eta Lite, Group, Kids edo Executive zerbitzua erabiltzen duen Programako bazkide bakoitzari. 400 Avios puntuko bonu bakarra emango zaio CABIFY lehen aldiz instalatu eta erabiltzen programako bazkide bakoitzari.
7. Avios puntuak lortzea ezin da pilatu beste promozio batzuekin.



8. Avios puntuak Programaren bazkidearen kontuan gehituko dira, zerbitzua erabili eta, batez beste, 7 eguneko epean.
9. Promozio honetan lortutako Avios puntuak erabiltzeko programen zehaztapenak eta baldintzak bete behar dira. Ikus itzazu helbide hauetan: Iberia Plus www.iberia.com, Vueling www.vueling.com edo British Airways Executive Club www.ba.com
10. Programen zehaztapenak eta baldintzak noiznahi alda daitezke, erabiltzaileari behar bezala jakinarazita.